

IGNACIO de OLAETA

1757-1815

Ignacio Olaeta Trafalgargo batailatik bizirik atera zen bakarrenetarikoa izan zen. Gernikan (Bizkaia) jaio zen eta 1773an Armadan sartu zen marina-zain gisa. *San José* ontzian bere zientzia ezagutza hobetu zuen eta Pedro Gonzalez Castejonek Afrika Iparraldera gidatu zuen espedizioan parte hartu zuen Mazarredorekin eta Francisco Hidalgo Cisnerosekin batera. Algeriako kostako operazio horietan ofizialen artean euskaldunak talde garrantzitsua osatzen zuten. Talde horrek Gibraltarren 1781ean burutu ziren ekintzetan ere hartu zuen parte, eta baita Howe almirante britainiarraren aurka burutu ekintzetan ere. 1782an Olaeta ontzi-teniente izendatu zuten. Hortik aurrera bere itsas-bidaia nagusiak Mundu Berriaren inguruan burutu zituen, lan handia eginez. Besteak beste; Limeña ontzia salbatu zuen Brasileko kostaldean, eta 1789an Espainia Berriko Erregeordearen aginduari jarraituz, Habana eta Veracruz arteko itsas defentsak indartu zituen. Xede horretan eta 1794ra arte Kubako portu horretan *Saeta* eta *Volador* bergantinak eraiki zituen. Bergantin haiek, *Flor de Mar* goletarekin eta *Castilla* ontziarekin batera Karibeko kostaldeko defentsan aritu ziren Frantziako eta Ingalaterrako ontziei aurre eginez. 1794a eta 1795a bitartean Frantziaren aurkako Lehenengo Koalizioaren erasoetan parte hartu zuen. Geroxeago, 1797an, San Vicente Lurmuturreko uretan Ingalaterraren aurka izandako bataila gogorrean egon zen. Garai horretako gainontzeko itsasgizon onenak bezalaxe Cadizeko defentsan egon zen Mazarredoren zerbitzura eta Nelson almiranteari aurre eginez. Orduan *Atocha* fragata gobernatu zuen. 1800a eta 1805a bitartean Bresteko eta Rocaubeneko kanpainetan egon zen, eta gero Armadaren ontzi onenetariko batzuen agintea eskuratu zuen, besteak beste, *San Pablo*, *Neptuno*, *Concepción* eta *Castilla* ontziena. Lehen aipatu dugun moduan, Trafalgargo batailan *Santísima Trinidad* ontziaren agintea zeukan kapitain kargua bete zuen eta Ingalaterrako sei ontziren eraso izugarria jasan ondoren amore eman behar izan zuen. 1808an Ignacio Maria Alavarekin bat egin zuen Frantziaren aurkako matxinadan, Cadizeko flota hartuz *Neptuno* ontziaren gobernuan. Independentziarako gerra osoan zehar eta *Miño* ontziaren gobernuan askatasunaren aldeko dirua ekarri zuen Veracruzeko eta Habanako portuetatik. Halabeharrez, urte batzuk lehenago Karibeko portu horietako defentsak arreta handiz prestatu zituen. Cadizen hil zen 1815ean Eskuadra buru izanik.

Ignacio de Olaeta fue uno de los pocos supervivientes de la batalla de Trafalgar. Nació en Guernika (Vizcaya) y entró en la Armada como guardia-marina en 1773. Tras perfeccionar sus conocimientos científicos en el navío *San José*, participó luego en la expedición del Norte de África a las órdenes de Pedro González de Castejón, lo mismo que Mazarredo y Francisco Hidalgo de Cisneros, consolidándose en estas reyertas sobre Argel un importante grupo de oficiales vascos. Dicho núcleo vasco volvió a concentrarse en las acciones de 1781 sobre Gibraltar, así como en los combates contra la Flota del almirante británico Howe. Durante 1782 Olaeta fue ascendido a teniente de navío y desde entonces sus singladuras se localizan especialmente en el Nuevo Mundo, destacando el rescate del buque *La Limeña* en las costas del Brasil, así como la misión recibida del virrey de Nueva España en 1789 para fortalecer las defensas marítimas entre Veracruz y La Habana. A tal efecto, y hasta 1794, terminó en aquel puerto cubano la construcción de los bergantines *Saeta* y *Volador*, que junto a la goleta *Flor de Mar* y el navío *Castilla* guarecieron el litoral caribeño de británicos y franceses. Entre 1794 y 1795 participó en las ofensivas contra la Francia de la Primera Coalición, localizándosele luego en la dura refriega del cabo de San Vicente de 1797 ante Inglaterra. Formó parte, al igual que los mejores marinos de la época, de la defensa de Cádiz frente a Nelson a las órdenes de Mazarredo, mandando en aquella ocasión la fragata *Atocha*. Entre 1800 y 1805 estuvo primero en las campañas de Brest y Rocauben, para luego asumir la autoridad sucesivamente de algunos de los mejores buques de la Armada, siendo los casos del *San Pablo*, el *Neptuno*, el *Concepción* o el *Castilla*. Como ya hemos señalado, durante Trafalgar se halló al mando del *Santísima Trinidad* con el rango de capitán, debiendo amargamente rendir el buque tras un abusivo asedio de seis navíos ingleses. En 1808 se unió a Ignacio María de Álava en la toma de la Flota de Cádiz contra los franceses como comandante del navío *Neptuno*. Durante toda la Guerra de la Independencia, y en potestad del navío *Miño*, ayudó a traer caudales para la causa de la libertad desde los puertos de Veracruz y La Habana, aquellas plazas caribeñas en las que tanto celo había puesto años antes al objeto de su defensa. Murió en Cádiz en 1815 con el grado de jefe de Escuadra.

Ignacio de Olaeta was one of the few survivors of the Battle of Trafalgar. He was born in Guernika (Vizcaya) and joined the Navy as a midshipman in 1773. After improving his scientific knowledge on the ship *San José*, he took part in the expedition to the North of Africa under the orders of Pedro González de Castejón, together with Mazarredo and Francisco Hidalgo de Cisneros. These actions in Algeria generated an important group of Basque officers. The said Basque core met once again in the actions in 1781 against Gibraltar, as well as in the battles against Admiral Howe's British fleet. In 1782, Olaeta was promoted to lieutenant and, since then, his voyages mainly centred on the New World, where he rescued the *La Limeña* off the coasts of Brazil and undertook the mission ordered by the Viceroy of New Spain in 1789 to strengthen the maritime defenses between Veracruz and Havana. On this mission, and until 1794, he finished building, at that Cuban port, the brigs *Saeta* and *Volador* which, together with the schooner, *Flor de Mar* and the ship, *Castilla*, guarded the Caribbean coasts from the British and the French. Between 1794 and 1795 he took part in attacks against France during the First Coalition and also found himself involved in the tough battle at Cape San Vicente against the English in 1797. He took part, together with many of the best sailors of the period, in the defence of Cadiz against Nelson under the orders of Mazarredo, commanding the frigate *Atocha*. Between 1800 and 1805 he fought in the Brest and Rocauben campaigns and later subsequently took command of some of the best ships in the Navy, such as the *San Pablo*, the *Neptuno*, the *Concepción* and the *Castilla*. As we have already mentioned, during Trafalgar, he commanded the *Santísima Trinidad* with the rank of Captain and had to surrender the ship after engaging six English ships. In 1808, while in command of the *Neptuno*, he joined Ignacio María de Álava in capturing the Cadiz Fleet from the French. During the War of Independence, as captain of the ship, *Miño*, he helped to bring funds for the cause of freedom from the ports of Veracruz and Havana, those Caribbean stations he had so painstakingly helped to defend in the past. He died in Cadiz in 1815 with the rank of Commodore.

IGNACIO de OLAETA